HISTORIAKO **KIROLARI ABERATSENA**

Nagore Irazustabarrena Uranga
@irazustabarrena

ERROMAKO MUSEO NAZIONALA

Erroman, zirkuko kirolariak lau talde nagusitan zeuden banatuta: zuriak, gorriak, urdinak eta berdeak. Irudietan, talde zuriko eta gorriko zaldunak irudikatzen dituzten mosaikoak (K.a. III. mendekoak). Diokles auriga talde zurian hasi zen, baina bere karrerako urte gehienak talde gorriarekin egin zituen.

Erroma, K.o. 146. Kaio Apuleio Diokles auriga erretiratu zen 42 urterekin. Lankide eta jarraitzaileek haren omenezko idazkun bat eginarazi zuten, Dioklesen ibilbide ikusgarria biltzen zuena. Besteak beste, jardunean irabazitako dirutza jaso zuten inskripzioan: 35.863.120 sestertzio.

Kaio Apuleio Diokles 104. urtean jaio zen Lusitania probintziako hiriburuan, Emerita Augustan (egungo Mérida, Espainia). Lusitaniako zaldiak fama handikoak ziren inperioan eta, hiriak zirkua zuela kontuan hartuta, ez da harritzekoa Emerita Augusta aurigen harrobi oparoa izatea.

18 urterekin hasi zen koadriga lasterketa ofizialetan lehiatzen, talde zuriarekin. 24 urte zituela, talde berdean sartu eta hiru urtez bertan aritu zen eta, azkenik, urte gehienak talde gorriaren alde eman zituen, 42 urterekin erretiratu zen arte. 24 urteko ibilbide luzea ezohikoa zen, auriga asko gazte hiltzen baitziren istripuetan; beste askok lasterketak nahi baino lehenago utzi behar izaten zituzten lesionatuta.

Ezohikoa zen, halaber, koadriga gidariaren garaipen portzentajea: %34. Beti ere Erroman egin zioten idazkunaren arabera, 4.257 lasterketatan parte hartu zuen eta 1.462tan irabazi zuen. Beste 1.438 lehiatan bigarren edo hirugarren izan zen helmugan. Gainera, irabazteko inongo aukerarik ez zuela zirudienean, atzetik aurrera egiteko zeukan trebeziagatik zen ospetsua, baita gurdia tiratzen zuten lau zaldien artean *ducenarios* bat zuelako ere; 200 lasterketatik gora irabazitako zaldia, alegia.

Irabaziak ez zetozkion garaipenetatik soilik. Garaiko *merchandising*-ak ere ekarpen handiak egin zizkion Dioklesen patrikari. Gladiadoreen eta aurigen zaleek askotariko objektu oroigarriak erosi ohi zituzten: kirolariaren irudia zuten olio-lanparak, mosaikoak...

Kirol bizitzaren amaieran ez zen Erromatik asko urrundu. Lazion bertan geratu zen, Praenesten, egungo Palestrinan, eta han hil zen. Heriotzaren dataren berri ez dugu.

Forbes aldizkariaren arabera, 2009an Tiger Woods golf jokalaria izan zen 1.000 milioi dolarreko irabazien muga gainditu zuen lehen kirolaria. Peter Struck Pennsylvaniako (AEB) Unibertsitateko Ikasketa Klasikoen arloko ikerlariaren arabera, berriz, Dioklesek egungo 15.000 milioi dolar irabazi zituen. Baina hainbeste mendeko tartearekin halako estrapolazioak egitea ez da oso fidagarria eta konparaketa garaikideak egitea esanguratsuagoa da. Aurigaren dirutzarekin inperioko armada osoa hiru hilabetez mantendu zitekeen, edo hiria urtebetez elikatu. ■

ALTIPLANO DE GRANADA

Huescar eta Danimarkaren arteko gerra luzea

1809an Espainiako gorteko mandatari militar bat iritsi zen Huescarrera (Granada) Errege Agindua eskutan. Danimarkarekiko harreman diplomatikoak hausteko agintzen zuen dokumentuak eta abenduaren 11n herriak gerra deklaratu zien danimarkarrei, Napoleonen aliatuak zirelako. Baina urtetan ez zuten soldadu danimarkarrik aurkitu inguru haietan eta, 1814an, Frantziako armadak Iberiar penintsulatik alde egin zuenean, huescartarrek afera ahaztu zuten.

1981ean Huescarko kronikari bat konturatu zen herriak oraindik Danimarkarekin gerran jarraitzen zuela ofizialki. Urte bereko uztailean Wandel-Petersen enbaxadoreak eta herriko alkateak bakea sinatu zuten, 172 urte eta gero. ■